

## DIRU- ITURRIAK

Gure enpresari hasiera emateko, bazkide bakoitzak enpresaren portzentaiaren arabera diru kantitate bat jarriko du, gure enpresa zatia ordaintzeko, mailegu bat eskatuko dugu. Produkzio kostua nahiko handia izango da, baina kaleko infraestruturaz guztien kostua udaletxeek ordainduko dute; parkineko murrak margotu, sentsoreak jarri... gastu handienetako bat izango dela aurreikusi dugu, beraz, enpresaren portzentai handiena haiek izango dute.

Portzentaiak horrela egongo dira banatuak: udaletxeak %25 a izango du, enpresaren sortzaileak %50a izango dugu laurion artean eta kanpoko bazkideak %25a, zeintzuk crowdfunding-en bitartez lortuko dute gure enpresaren parte izatea.

Behin proiektua martxan dagoela, irabaziak suskripzioen, publizitatearen eta bezero premiumen bidez lortuko dira. Bestetik, aplikazioa deskargatzea dohainik izango da, baina aplikazioaren zerbitzua jasotzeko ordaindu beharko da; motorrek 2,99€ eta kotxeek 4,99€ bestela 6,99€- rengatik biak edukitzeko aukera izangodute, beti ere, hiru matrikula gehienez sar ditzakezu pertsonako, horrela familia artean partekatzeko aukera izango da eta azkenik bezero premium izateko aukera egongo da euro bat gehiagorengatik zerbitzu bakoitzean. Prezioak dinamikoak izango dira, hau da, denbora pasatzen den heinean eta gure enpresa forma hartzen joaten den heinean, gure zerbitzuaren erabilera kontuan izanda, prezioak igo edo jaitsi egingo dira.